



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoko 25eko 25/1998 FORU DEKRETUA, 1998an hiri plangintzaren agerkaia gertutzeko laguntzak araupetzen dituena.

ZIOEN ADIERAZPENA

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan, abenduaren 19ko 14/1997 Foru Arauaren bidez onetsitakoetan, ondoko helburua duen epigrafe bat erantsita dago: Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalei hiri plangintzaren agerkaia gertutzeko atazan laguntzea; ondorioz, beharrezkoa da laguntza mota berezi honen emakidaren oinarri araupetzaileak ezartzea.

Berori dela bide, Hirigintza Saileko Foru Diputatuak hala proposatuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak aurretiaz eztabaidatu eta onetsi ondoren,

XEDATU DUT

1. Artikulua- Xedea.

Dekretu honen xedea ondorengoa da: Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalei 4. artikuluan aipatzen diren hiri plangintzaren agerkaia gertutzeko gastuak ordaintzeko laguntzak ematea.

2. Artikulua- Laguntzak

Dekretu honetan ezartzen diren laguntzak dirulaguntza ez- itzulkorren kategorian daude sartuta.

3. Artikulua- Onuradunak

Bizkaiko Lurralde Historikoko Udal guztiek eskuratu ahal izango dituzte deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak.

4. Artikulua- Diruz lagun daitezkeen agerkaia.

1. Ondoko hirigintzako agerkaietako bat gertatzeko helburu duen jarduera lagundu ahal izango da:

- a) Plan Orokorrak eta beren berrikuspenak.
- b) Arau Subsidiarioak eta beren berrikuspenak.
- c) Onetsitako plan orokorra garatzen duten eta kooperazio edo desjabetzapen sistemaren bidez egikaritzen diren Plan Partzialak.
- d) Onetsitako plan orokorra garatzen duten eta herri interesa duten Plan Bereziak.
- e) Desjabetzapen Proiektuak, baterako tasazio prozedura ezartzen denean.

2. Aurreko atalean adierazitako agerkaien idazkien euskaratzea ere diruz lagun daiteke.

3. Hurrengo jarduera hauek baztertuta geratzen dira deialdi honetan:

- a) Lan edo Azterlan osagarriak, diruz lagun daitezkeen agerkaia gertutzeko agiri kontratatuetan sartuta egon gabe, hirigintzako legerian ezarritakoaren arabera eskakorrak ez direnak.



- b) Diruz lagun daitezkeen Agerkaiek aldarazteko xedea duten lanak.

5. Artikulua- Diruz lagun daitezkeen gaiak

Dekretu honen arabera, ondorengo gai bietako batek eragindako gastuak lagun daitezke diruz:

- a) Laguntzeko diren agerkaiek gertutzeko, Udalak sinatutako kontratu administratiboaren adjudikazioaren zenbatekoa.
- b) Udaleko gastu aurrekontuan onetsitako zenbatekoa (I. eta II. kapituluak), zertarako eta dagokion hiri plangintza burutzeko helburu bakarra duen udal bulegoaren jardunbide egokia erantzuteko, beti eta aipatu bulegoa aurrekontuan eta organikoki gainerako unitate administratiboetatik bereiz badago.

6. Artikulua- Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Plangintza orokorraz edo garapenez ari garen kontuan hartuta, dirulaguntzaren zenbatekoa ondorengo kopuruak batzearen emaitza den kopuruaren %100 edo %70eraino hel daiteke.

- a) Udaleko gastu aurrekontuaren edo kontratuaren adjudikazioaren zatia, zein, kontratuen burutzapen edo aurrekontuen burutzapenaren baldintzen arabera, aurreburutzea aurreikusten den.
- b) Aurreko urteetan ziurtatutako edo fakturatutako lanen zenbatekoa.

2. Edonola ere, dirulaguntzaren zenbatekoak, dagokion hirigintzako agerkaia gertutzeko gastuak ordaintzeko ematen den beste edozein laguntzarekin batera, ezin izango du diruz lagundutako lanen %100 edo %70 gaintu, plangintza orokorra edo garapeneko den kontuan hartuta.

7. Artikulua- Aurkezteko agiriak eta epea

1. Foru Dekretu hau indarrean jarri eta ondorengo 45 eguneko epearen barruan, laguntza hauen emakidan interesatuta dauden Udalek Hirigintza Saileko sarrera erregistroan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

A) Kanpo aholkularitzekin kontratatutako lanetarako:

- a) Dirulaguntza eska daitekeela erabaki duen udal ebazpenaren ziurtagiria.
- b) I zenbakiko eranskin gisa erantsita dagoen dirulaguntza eskabidearen eredia, behar den bezala betea.
- c) Kontratuaren fotokopia, non I. eranskineko 1-6 zenbakietan adierazitako puntuak agertzen diren.
- d) Hala badagokio, kontratuaren urtekoak aldarazten dituen udal ebazpenaren ziurtapena.
- e) Onetsitako fakturak zerrendatzen dituen ziurtapena, ordainduta daudenak adierazita.
- f) Hala badagokio, helburu bera izanda, dirulaguntzarik jaso edo eskatu ez delako beren-beregiko aitortzea.

B) 5. artikuluan deskribatutako udal bulegoak eginiko lanetarako:

- a) Dirulaguntza eska daitekeela erabaki duen udal ebazpenaren ziurtagiria.
- b) II zenbakiko eranskin gisa erantsita dagoen eredia, dirulaguntza eskabidearena, behar den bezala betea.
- c) Bulegoa sor daiekeela erabaki duen udal ebazpenaren fotokopia.
- d) Bulegoaren jardunbiderako onetsitako 1998ko gastu aurrekontuaren ziurtapena, kapituluetan banakatua.



e) Agindutako ordainketak zerrendatzen dituen ziurtapena.

f) Hala badagokio, helburu bera izanda, dirulaguntzarik jaso edo eskatu ez delako beren beregiko aitortpena.

2. Eskabidea azaltzean kontuan hartu beharko da diruz lagun daitekeen gehienezko zenbatekoa Dekretu honen 6. artikuluan ezarritakoa izango dela.

3. Eskabidearekin batera eskatutako agiriak ez badira aurkezten edota eraren batean osatu gabe aurkezten badira, interesatutako Korporazioei eskatuko zaie 10 eguneko epean antzemandako akatsak zuzentzeko, zuzendu ezean, eskabideari uko egiten diotela ulertuko dela ohartarazita.

4. Edozelan ere, Aurkeztutako eskabideak ulertu eta baloratzeko beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eska dezake Hirigintza Sailak.

8. Artikulua- Eskabideen tramitazioa

1. Hirigintza Saileko Foru Diputatuaren Aginduz izango dira ebatzita eskabideak, Hirigintza Saileko Zuzendari Nagusiak eskatuta eta aurretiaz Hirigintzako Teknika Arloko Zerbitzuaren txostena dela.

2. Azaldutako eskabideak ebazteko gehienezko epea deialdi hau argitaratzen denetik hiru hilabetera izango da. Dena den, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera litekeena da epe hori luzatzea. Hasierako epea eta, hala badagokio, luzapenarena amaituz gero, beren-beregiko ebazpenik ez badago, eskabideak atzera emantzat hartuko dira.

3. Udal onuradunek edo Hirigintza Saileko Foru Diputatuak hala eskatuz gero, eskabideen emakida administrazio agiriz azal daiteke, alderdi biek hartzen dituzten elkarrekiko konpromezuak agertarazteko.

9. Artikulua- Emakida araubidea

1. Dirulaguntzak ondoko lehentasun hurrenkeraren arabera emango dira:

- 1.- Emanda dauden plangintzari buruzko lanak
- 2.- Gertutzen ari diren plangintzari buruzko lanak
- 3.- Emandako itzulpen lanak
- 4.- Gertutzen ari diren itzulpen lanak

2. Lehentasun hurrenkera guztien barruan, maila handiagoko plangintzako agerkaiek behe mailakoen gaineko lehentasuna izango dute eta, maila bereko agerkaietan, lehia bakunaren araubidea ezarriko da, eskabideen aurkezpenaren hurrenkera kontuan harturik.

10. Artikulua- Dirulaguntzaren ordainketa

1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa dagozkion ziurtapenak edota fakturak aurkeztutakoan ordainduko da. Horretarako, udal administrazioak ondorengo agiriak igorri beharko dizkio Hirigintza Sailari:

- a) Organo eskudunaren abonamendu eskabidea.
- b) Ziurtapena, faktura edo ordezten duen agiria, baita emandako lanen harrera akta edo ordezten duen agiria.
- c) Hala badagokio, udal bulegoaren jardunbide egokirako agindutako ordainketen ziurtapen egiaztatzailea.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoko 25eko 25/1998 FORU DEKRETUA, 1998an hiri plangintzaren
agerkaiak gertutzeko laguntzak araupetzen dituena.

2. Hirigintza Sailean abonamendu eskabideak aurkeztutako mugaduta aurtengo abenduaren 15ean izango da eta ulertuko da Udal onuradunek emandako eta bidezkotu gabeko dirulaguntzaren zenbatekoari uko egiten diotela, goian aipatu agiriak aurkeztuta, adierazitako dataren egun horretan.

11. Artikulua- Arautegi Orokorra

Dekretu honetan bertan ezarritakoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren dirulaguntza eta laguntza publikoen arautegi araupetzaile orokorrak eraenduko dituzte Dekretu honek ezarritako dirulaguntzak.

XEDAPEN ERANTSIK

Lehena.- Hirigintza Saileko Foru Diputatua Dekretu honetan ezarritakoa burutu eta betearazteko beharrezko diren xedapen guztiak emateko eskuetsita dago.

Bigarrena.- Helburu honetarako onetsitako gasturako emateko laguntzen zenbatekoa 90.000.000.- pezetan ezarriko da ondorengo epigrafeei dagokien aurrekontu partidan: 1998ko ekitaldiari; 430201 egitarauari; 732.99 kontzeptu-azpikontzeptuari; 11.03 organikoari; 01457 hurrenkera zenbakiari.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean.

HIRIGINTZAKO FORU DIPUTATUA

Josu Montalbán Goicoechea

DIPUTATU NAGUSIA

Josu Bergara Etxebarria



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoko 25eko 25/1998 FORU DEKRETUA, 1998an hiri plangintzaren agerkaiak gertutzeko laguntzak araupetzen dituena.

I. Eranskina

PLANGINTZAKO AGERKAIK GERTUTZEKO LAGUNTZA ESKABIDEA

Foru Dekretuaren zk.: /1998ko aren, (e)koa

Toki erakunde eskatzailea

_____.

Udal Arduraduna

_____.

Eskatutako dirulaguntza (pezetatan)

_____.

(6. art.an 10.2 art.an adierazten denari buruz ezarritakoa kontuan hartu beharko da)

Udalak sinatutako kontratu administratiboaren datuak:

- 1.- Adjudikazio erabakia: _____.
- 2.- Xedea: _____.
- 3.- Adjudikataria: _____.
- 4.- Adjudikazio aurrekontua: _____.
- 5.- Burutzeko epea: _____.
- 6.- Urtekoak: _____.

Urteak	199__.	199__.	199__.	____.
Pezetak				

7.- Urtekoak aldarazteko erabakia: _____.

Urteak	199__.	199__.	199__.	____.
Pezetak				

8.-Egindako ordainketak:

Urteak	199__.	199__.	199__.	____.
Pezetak				

9.- Onetsitako ziurtapenak edo fakturak, ordaintzeko daudenak:

Urteak	199__.	199__.	199__.	____.
Pezetak				



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoko 25eko 25/1998 FORU DEKRETUA, 1998an hiri plangintzaren agerkaia gertutzeko laguntzak araupetzen dituena.

10.- Emandako dirulaguntzak:

Erakunde Emailea	Año	Pezetak

n, 1998ko aren (e)an

Sin.:



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoko 25eko 25/1998 FORU DEKRETUA, 1998an hiri plangintzaren agerkaiak gertutzeko laguntzak araupetzen dituena.

II. Eranskina

PLANGINTZAKO AGERKAIAK GERTUTZEKO LAGUNTZA ESKABIDEA

Foru Dekretuaren zk.: /1998ko aren, (e)koa

Toki erakunde eskatzailea

_____.

Udal Arduraduna

_____.

Eskatutako dirulaguntza (pezetatan)

_____.

(6. art.an 10.2 art.an adierazten denari buruz ezarritakoa kontuan hartu beharko da)

Udal bulegoaren datuak:

1.- Sortzeko erabakia: _____.

(ebazpen mota eta data)

2.- Bulegoaren izena: _____.

3.- Aurrekontu egitarauaren izena: _____.

4.- Udalak onetsitako gastuen aurrekontua (I. eta II. kapituluak):

Urteak	199__.	199__.	199__.	_____.
Pezetak				

5.- Agindutako ordainketak:

Urteak	199__.	199__.	199__.	_____.
Pezetak				

6.- Emandako Dirulaguntzak:

Erakunde Emailea	Año	Pezetak

n, 1998ko aren (e)an

Sin.: